

BUKAERA ONIK GABE

Nekatuta nago hainbeste sardina-lata jateaz. Jaten dudan guztia kontserba-latak dira: sardinak latan, ilarrak latan, txitxirioak latan, dilistak latan, anana latan... Latekin amesgaiztoak izan ditut. Egia esanda, barazki "freskoak" ez dira hobeak, baratze hidroponiko hauetan hazitako guztiak ez du zaporerik. Dagoeneko ahaztu zait zer zapore duen marrubi on batek edo txorizo eta guzti prestatutako dilista plater on batek. Ez dakit zer emango ote nukeen hori jateagatik... Beno, behintzat jatekoa badaukat, ez beste batzuek bezala. Batzuetan gustatzen zait imaginatzea zer sentituko nukeen txokolate-ontza bat jatean. Orain dela egun batzuk bukatu zen azken txokolate-barra; egia esan, egunak urte bilakatu dira. Dagoeneko ez da ezer gozoa geratzen despentsan. Zer pena, ezta? Jaten gozatzen denarekin... Zenbat gozatzen nuen jaten ... Izan ere, jateak edonor pozten du, baina txokolatea izan beharrean sardina-lata ahoratzea tokatzen bada, ba beno, ez du poz handirik sortzen.

Hemen intimitate asko ez duzu edukiko, jende asko bizi gara hemen, dena partekatzen dugu gure artean. Denok elkar ondo ezagutzen dugu, ez dago beste aukerarik. Hasieran denekin eztabaidatzen nuen, "dutxa hori nik hartu dut", "ez ukitu nire gauzak", "utzi intimitate pixka bat, mesedez"... Baina azkenean konturatzen zara ez duela merezi. Logela bakoitzean 30 pertsona bizi gara. Ez dakit zehazki zenbat logela dauden guztira, baina asko daudela badakit. Hizki eta zenbaki batekin sailkatzen dira eta nire logela E4 da. Literetan egiten dugu lo, eta koltxoiak ez dira beste mundukoak. Nire ohea faltan botatzen dut gauero.

Argitzen gaituen argi bakarra artifisiala da, ia dena bezala. Ez dugu eguzkiaren argirik, lurretik kilometro batera murgilduta gaude eta. Hemen behean ez dira urtaroak existitzen. Udaberri batean bizi gara beti, nahiz eta klimarik ez egon. Ez dut euria aspalditik ikusten. Barregarria da, lehen gorroto nuen euria eta orain, berriz, faltan botatzen dut, a zer gauzak. Denek banpiroak dirudite; ez digu eguzkiak ematen, beraz, paretak baino txuriagoak gaude.

Babeslekuan denok zeregin bat dugu, eta batzuetan aldatu egiten da: janaria prestatu, baratzan lagundu, komunak garbitu, arropa garbitu... Baina pertsona batzuek, zeregin batean espezializatuak daudenek, adibidez, erizainek, biologoek, psikologoek, nekazariak etab, lanpostu finko bat daukate. Adibidez, nik neuk. Irakaslea naiz, gazteei hezkuntza ziurtatzen diet. Hemen behean gaudenetik hezkuntza-sistema pixka bat aldatu da. Dagoeneko gazteek ez dute ikasten aditzaren subjuntiborik edo XV. mendeko historiari. Ez, Jaurlaritzak adostu zuen gazteen hezkuntzak biziraupenerako gakoetan oinarritutakoa izan behar zuela; hau da, bizimodu honetan bizitzeko eta bizirauteko ezinbestekoa den jakintzan

oinarritutakoa. Zer egin sute bat egongo balitz, norbaitek zauri handi bat egingo balu, eta beno, horrelako kontuak... Bestalde, denok bizi-maila bera dugu, hemen behean ez dugu dirua erabiltzen, denok berdin elikatzen gara. Era berean, berdin janzen gara; ia egunero galtza berekin jantzi behar dugu, izan ere, ez zigun denborarik eman maletak egiteko; azken finean, gerra nuklear batek ez du abisatzen.

Hasieran bilerak egiten ziren astero, sostengu-talde baten pare. Bilera horiek lagundu ziguten hemen behean jendea ezagutzen, gure arazoak besteekin konpartituz, tristura uxatzeko. Jende pila bat joaten zen, babesleku guztia ia. Baina orain, bost urte pasa dira hemen gaudenetik eta inor ez da joaten.

Hona etorri nintzenetik bost urte pasa dira. Bost urte. Esan nezakeen azkar pasa direla, baina gezurretan arituko nintzatekeen. Oso mantso pasa zaizkit bost urte hauek. Bakarrik iritsi nintzen eta oso beldurtuta, gainera. Lehenengo urtean bi aldiz saiatu nintzen nire buruaz beste egiten, bakarrik nengoen, nire familia eta lagunak galdu nituen.

Bost urte lehenago

- Esnatu maitia, ikastolara joateko ordua da-. Leihoak ireki nituen, Mararen ohera gerturatu nintzen oheko izarak kenduz, bere alboan eseri nintzen eta muxuz bete nion aurpegia. Bere beso txikiak luzatu zituen nire lepoaren inguruan eta hankatxoak nire gerriaren bueltan. Ohetik altxatu eta sukaldeko aulki batean eseri nuen neskatila. Nire eguneko momenturik gustukoena huraxe zen, Mara ikastolara eramateko esnatu behar nuenean. Egia esan, etxean eta familiarekin nengoen momentu guztietan oso pozik egoten nintzen. Barregarria iruditzen zitzaidan ikustea nola poliki-poliki lo geratzen zen zereal katiluaren kontra. Egunean zehar gutxi ikusten nuen nire alaba, behintzat nahiko nukeena baino gutxiago. Eguneko zatirik handiena ematen nuen lanean, unibertsitateko irakaslea izatea pentsatzen nuena baino zailagoa da. Goizean Mara esnatu eta ikastolara eramanez ondoren lanera joaten nintzen, eta etxera arratsaldeko zazpietan itzultzen nintzen. Nire alaba eta senarrarekin afaltzen nuen behintzat. Marak beti azaltzen zigun zer egin zuen ikastolan egun horretan, eta Iñakik eta biok arretaz entzuten genion.

- Ama, noiz bueltatuko zara Madriletik?- galdetu zidan Marak lo aurpegiarekin.

- Ostiral honetan seguruenik. Baina lasai, bost egun hauek oso azkar pasatuko zaizkizu eta ez zara konturatuko joan naizela ere. Aitarekin eta amonarekin egongo zara eta asko dibertituko zara, ikusiko duzu.- Oraindik ez nintzen joan eta jada bere hutsunea nabarmentzen hasia nintzen.

Mara ikastolan utzi ondoren Madrilerara abiatu nintzen kotxez. Laneko kontuak zirela eta, egun batzuk pasa behar nituen Madrilen.

Sei ordu eta gero, azkenean Madrileko frontera pasa nuen. Nire hotela bilatzen ari nintzen, nekatuta, gosez amorratzen. Alcala-ko atearen albotik pasatzen ari nintzenean, bat-batean, izugarritzko leherketa entzun nuen. Jarraian hots sarkor luze bat entzun nuen eta burua bueltaka nuen. Segundo batzuk geroago, nire onera bueltatu nintzen, kotxetik atera, eta jendea korrika eta builaka ikusi nuen. Ondoren beste leherketa bat entzun nuen, baina oraingo honetan gertuago. Ikaratuta nengoen eta konturatu gabe jendearekin batera korrika hasi nintzen, noraezean. Megafonia bitartez entzun nuen metroko geltokietara jaisteko agindua. Baina ez nekien non zeuden metroko geltokiak, beraz, jendeari jarraitu nion itsu-itsuan.

Azkenean metroko geltoki bat ikusi nuen eta hara joan nintzen, inoiz ez bezala, korrika. Jendearen garrasi etsiak entzuten nituen etengabe, eta orduan konturatu nintzen ni ere garrasika ari nintzela. Iritsi nintzenean, polizia ikusi nituen jendea eskaileretan behera gidatzen. Eskailerak jaisten ari nintzen bitartean, ez nituen koskak ikusten eta seguru nago ia erortzeko zorian egon nintzela. Eskailerak jaitsi ahala, bi ate handi ikusi nituen pasilloaren alda banatan, eta jendea zeharkatu nahian. Ezkerrekotik pasa nintzen; hainbeste jende zegoenez, eskuinera joan nahi izan banu ezin izango nukeen. Korridore moduko bat zen, behearantzko norabidean. Ametsetan nengoela zirudien, shock egoeran, eta ez nekien nora nindoan ere. Gutxienez pare bat aldiz estropezu egin nuen ingurukoekin. Bihotzeko taupadak inoiz baino azkarrago zihoazkidan. Ezin zen korrika egin, baina bai azkar ibili. Korridorean aurrera egin eta bitan banatzen zen berriz, eta oraingoan ere ezkerrekotik igaro nintzen. Prozesu hori hamaika aldiz egin genuen, ordu laurden batez. Denborak aurrera egin ahala, seguruago nengoen amesgaizto bat zela, korridore haiek amaigabeak baitziren.

Azken korridorearen amaieran ate handi bat zegoen. Hura zeharkatu eta izugarritzko areto erraldoi batera iritsi ginen. Futbol zelai bateko eserlekuak bezalakoak zeuden aretoaren lau hormetan. Haietan esertzeko agindu ziguten polizia batzuek. Jende berria iristen zen aretora etengabe. Nire esertokitik jendea beldurtuta ikusten nuen, batzuk zaurituta ere bai. Mugikorra hartu nahi izan nuenean ohartu nintzen kotxean ahaztu nuela, eta ezingo nion inori deitu. Hala ere, ez nuen uste hemen behean koberturarik zegoenik. Ordu erdi eta gero, jende gehiago ez zetorrenean, norbait mikrofono batekin aretoaren erdian jarri zen, armadako goiburu bat ematen zuen.

- Kaixo guztioi, sumatzen dut denok dakizuela zer pasatzen ari den. Madril bonbardatu dute, ez dakigu nork eta zergatik, baina babesleku honetan geratuko gara dena pasa arte. Hemen ez dago koberturarik, beraz, ezingo duzue deirik egin. Banan-banan deituko zaituztegu erizaindegira etor zaitezten, segurtasuna bermatu beharra dago. Han bertan zuen datuak bilduko ditugu. Mesedez, lasai egon, hemen behean arriskuz kanpo gaude eta gora joatea segurua dela jakin bezain laster igoko gara. Larri zaurituta daudenak artatuko ditugu lehenengo. -Adierazi zuen gizon burusoil batek.

Milaka pertsona geunden aretoan bilduta. Nire alboko esertokian nire adinekoa ematen zuen emakume bat zegoen eserita eta beste alboan, berriz, adineko emakume bat.

- Nork pentsatuko zuen ate handi horiek hona ekarriko zutela? Norbaitek esan izan balit, ez nuen sinistuko.- esan zuen lasai zegoela zirudien adineko emakumeak.

- Metro geltokiko eskaileren segidan dauden ateei buruz ari zara?- galdetu nion galduta.

- Bai. Madrilen bizi izan naiz nire bizitza osoan eta orain arte inoiz ez direla ireki ziurta diezazuket.

- Ondo dago jakitea. Ez naiz Madrilekoa, Bilbokoa naiz. Lanegatik etorri naiz.

- Egun desegokia etortzeko.- Esan zuen emakumeak, besaburuak altxatzen zituen bitartean. Adineko emakumea eta biok luze hitz egin genuen. Luisa deitzen zen eta lau biloba zituen. Haien argazki pila bat erakutsi zizkidan eta egia esan, horrek lasaitu ninduen. Bat-batean armadako goiburua agertu zen berriro aretoaren erdialdera eta adierazi zigun egun batzuk bertan eman beharko genituela hiria erradiaktibitatez beteta zegoelako eta Espainia guztia suntsituta zegoelako; beraz, oraingoz ezingo genuela gure familiarekin kontaktuan jarri, ez baitzekiten Madrildik kanpo onik ateratakorik ba ote zegoen.

Momentu horretan bertan ia bihotza atera zitzaidan ahotik. Ezin nuen sinistu, ez nuen sinistu nahi. Bilbo ere suntsitu ote zuten? Nire burua konbentzitu nahi nuen, Mara eta Iñigo babestuta zeudela pentsatuz.

Pare bat ordu geroago, taldeka jarri eta babeslekua erakutsi ziguten. Erraldoia zen, ehunka logela, komun eta gela zituen. Neure buruari galdetu nion gertatzen ari zena egia ala ametsa zen. Ez sinisteko modukoa zen, noiz eraiki zuten leku hura? Eta nola zegoen hain ondo antolatuta eta banatuta? Bazirudien Madril bonbardatu baino lehenago, jakin bazekitela. Ezin nuen sinistu gertatzen ari zena; egia esan, ez nuen sinistu nahi. Hurrengo egunean adierazi zigutenak lur jota utzi ninduen, ordea. Mundu guztia suntsituta zegoen.

Gaur egun

Gaur egun ez dakigu zer herrialdek bota zituen bonba nuklear haiek, ezta zergatik ere. Munduan bizirik gelditzen diren pertsona bakarrak ote ginen? Ez dakigu egunen batean babeslektik atera ahalko garen edo gure bizitza osoa hemen emango dugun. Amesgaizto honen okerrena da ez dakidala nire alaba bizirik dagoen ala ez, baina nire baitan uste dut bizirik dagoela. Hori da goizean jaikitzeo dudan arrazoi bakarra. Ezinean nagoenean, alaba ekartzen dut gogora eta aurrera jarraitzeo indarra ematen dit. Egunen batean, noiz ez dakit, baina berarekin elkartuko naizela ziur nago.